

Zanharzt

Naiara Zubimendi Zubillaga



Zumaia Udala

*en skara
txanplan*

Zanharzt

Naiara Zubimendi Zubillaga

Julene Azpeitia 31. ipuin lehiaketa

2018

Zumaiako onenaren saria

2018ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Naiara Zubimendi Zubillaga (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Begiak zabaltzeko saiakera egin dut, baina betazaletan sentitu dudan pisuaren eraginez, nahi baino lehen itxi zaizkit osterera ere. Irudi nahasiak eta lausoak ikusi ditut istant labur batez. Minbera dut garondoa eta ez dakit ez non nagoen, ezta zer gertatu zaidan ere. Norbait dut alboan eta zerbait esaten dit, baina ez ditut haren hitzak ulertzen. Gorputz-atalak mugitzeko zailtasunak ditut eta ez naiz hitzik ahoskatzeko gai.

Ogi txigortuari gurina zabaltzen ari dela ikusi du iragarkia egunkarian. Teresak ez du egunkaririk erosten eta oporretan dagoen bizilagunari postontzian pilatu zaizkionak hartu ditu irakurtzeko. Lanik gabe dago Arte Ederren fakultatean ikasketak amaitu zituenetik, eta, gurasoen diru-iturriak amaitu zaizkionez, lan-eskaintzen atalera jo du zuzenean.

Atentziona eman dio iragarkiak: *Berlin Artists-in-Residence, Berliner Künstlerprogramm*; hainbat alorretako artistei zuzenduriko beka-programa internazionalki entzutetsua. Arte-formazioa, aleman-ikastaroa, aseguru eta bidaiagastuak ordaintzeaz gain, Berlinen alokairua eta mantenua pagatu ahal izateko diru-laguntza eskaintzen duen beka. Galtzekorik ez duenez, Teresak eskaera-orrria betetzeko erabakia hartu du.

Erabaki horrek ekarri du Alemaniako hiriburura hilabete gutxi geroago. Eskuraezina bezain tentagarria zirudien beka lortu ondoren, Berlinen da Teresa motxila bat bizkarrean harturik, urduri, urte berri horri aurre egiteko prest. Bizkar-zorroa ostatuan utzi eta azpian dagoen tabernara jaitsi da gosea baretzeko asmotan. Kanpotik dotorea dirudi tabernak, dotoreegia bere ustez, baina goseak eta nekeak bultzatuta ez du dudarik egin bertan sartzeko. Barrutik oraindik sofistikatuagoa iruditu zaio eta lekuz kanpo sentitu da soinean daramatzan ohiko bakero zulatu eta tirantedun elastikoarekin.

Plater konbinatu bat eta garagardo bat eskatu eta leiho ondoan dagoen mahaian eseri da. Begira sumatu du zerbitzaria norbaitekin telefonoz ari den bitartean eta, egoerak sortzen dion deserosotasuna ekiditeko, mugikorra eskuan hartu eta lagun eta familiakoei mezuak bidaltzen hasi da. Berehala gerturatu zaio irribarre handi batekin.

–Hementxe duzu afaria, ea gustukoa duzun. Iritsi berria zara, ezta? –zerbitzariak adeitsu– Annika naiz.

–Eskerrik asko. Ni Teresa. Oraintxe bertan iritsi naiz, bai –arrotza zaion hizkuntzan bere lehen hitzak egiteko norbait izatea eskertu eta hiztegiaren laguntzaz azaldu dizkio Berlinera joatearen arrazoiak–. Alokairuan hartzeko pisu bat topatu bitartean, hemen gaineko ostatuan emango ditut egunak.

–A zer kasualitatea! Nire etxebizitza-blokean apartamentu huts bat dago eta jabeak alokatzeko asmoa duela uste dut –esan dio zerbitzariak.

Mahaian utzi dion kontuaren atzealdean bertan idatzi dizkio bere izena eta ezkaratz berean bizi den jabearen datuak, eta pisua ikustera joateko konbentzitu du. Aukera bikaina izango delakoan, Teresak biharamunean joango dela hitzeman dio.

GPSa eskuetan iritsi da zerbitzariak esandako lekura, Charlottenburg auzora. Eraikinari begira geratu da. Itxura bikaina du, eraikin berri eta modernoa, moda-modan dagoen auzo batean, eta arte-eskolafik oso gertu, gainera. Ezkaratzera iritsi eta atezain automatikoari erreparatu dio aurkitu beharreko izenaren bila. Hiru solairuko etxebizitza da, bakoitza bina apartamentuz osatua. Klein, Schmidt, Nussbaum, Dr. Hans Bamberg - Zahnarzt-, Gottschalk, eta azkenengoan, hutsik dagoen apartamentuan, ez du ezer jartzen. Hans Bamberg izena da Annikak emandako papertxoan agertzen dena. "Zahnarzt" hitzak dentista esan nahi duela uste du, ogibideak ikasteko jasotako ikasgai hartatik gaizki oroitzen ez badu behintzat. Annikak ez dio esan Bamberg jauna dentista denik, baina huraxe da helbidea eta txirrina jo du.

Gizonezko altu, beltzaran eta eder batek ireki dio atea. Alemaniar tipikoaren profila ez duela betetzen pentsatu du, ilehori eta gorpuzkera handiko gizonezkoa espero baitzuen ate atzean. Teresak irudipena izan du Hansek bera ikusi orduko pauso bat atzera egin ote duen, baina papertxoa luzatu eta hiztegi urriko alemanez azaldu dio Annikak kontatu diola pisuarena. Uste baino errazago iritsi dira akordio batera eta

apartamentuko giltzak eman dizkio Teresari. Berea hirugarren solairuko apartamentua da, 3B, hain zuzen ere.

1A apartamentua (Klein)

Klein jauna goizeko bederatzietan iristen da egunero 1A apartamentura eta gauean, zabor-billetaz arduratzen den kamioia pasa ondoren, itzultzen da bere etxera. Traje garestiak janzten ditu, emazteak banketxeko zuzendaria dela pentsatzen jarrai dezan. Bezeroen kontuetatik dirua lapurtzen zuela ohartu zirenetik ez da banketxera itzuli. Lanetik bota zuten, baina banketxearen izen ona mantentzeko, dena isilpean mantendu eta ez zuten haren kontrako salaketarik ipini. Egun, Charlottenburg auzoko eraikin horretan dihardu zaindari lanetan, bere gaztetako lagun minak hala eskatuta. Gezurrezko abizen baten azpian, lehenengo pisuko apartamentu horretan ematen ditu eguneko orduak, gortina atzean, leihotik begira, sakelakoa belarrian duelarik. Ez du bere lana gustuko, baina dirua etxera eramaten jarraitzeko modu bakarra da.

Asteburuetan, libre dituen bi egunetan, jatetxe garestietan afaldu ondoren, operara, antzerkira edo zinemara eramaten du emaztea. Ez daki, ordea, horrek ez duela jada Klein andereak sentitzen duen hutsunea betetzen.

Albert Kleinek mahai txiki bat du leiho ondoan eta koaderno eta boligrafoa mahai gainean. Bamberg jaunarengana etortzen diren emakumeei buruzko datuak idazten ditu, eta eraikinekoa ez den gainontzeko bisitari oro zelatatu. Hori da bere eguneroko lana, inolako ezustekorik izaten ez duen lan aspergarria, baina, halako batean, ezaguna egin zaio etxepera aterkipean gerturatzen ari den emakumezkoaren ibilera berezia eta honek emandako pauso bakoitzak Alberten bihotz-taupadak bizkortu ditu.

Dentistaren txirrina jotzen ikusi duen arte ez du onartu nahi izan bere emaztea denik. Eta momentu horretan, dardarka hasi eta eskukoa lurrera erori zaio, gertatzera doanak atzera bueltarik ez duela jabetu denean.

1B apartamentua (Schmidt)

Izerditan daude ia bi metro luze diren adimen urriko biki baldarrak. Ez da harritzekoa, goizeko ordu biak izateko bero handia egiten baitu maiatzaren lehenengo honetan. Bien artean daramate marroi koloreko manta zahar batez bildurik egin duten fardel handi eta astuna. Lurrean jarri eta bueltak emanda bildu dute fardoa eta arropak zintzilikatzeke erabiltzen duten sokarekin lotu, bi korapilo arrunt eginez.

Ez dute hitzik egin eskaieratan behera doazen bitartean. Arnasestuak eta eskailburu bakoitzean fardoak paretaren kontra hartzen duen kolpea bakarrik entzun daitezke gau isilean.

Sotoraino jaitsi, atzeko atetik atera, garajea dagoen Trabant zaharreko maletategia ireki eta bertan sartu dute fardoa. Autoan sartu, eta motorra martxan jartzeko hiruzpalau saiakera zaratatsu egin ondoren, abiatu egin dira.

2A apartamentua (Nussbaum)

Urpeko errugbi jokalaria zen The mighty croissant izeneko taldean. Lagunarteko partida bat jokatzeraz zihoazela izan zuten kotxe-istripua, bera gidari zela. Taldeko beste batek baino zorte handiagoa izan zuen arren, bizkarrean izan zuen lesio larriaren ondorioz, kirola egiteari utzi behar izan zion.

Orain, Arthurrek depresio-aldiak izaten ditu tarteka eta errudun sentitzen da tragedian biziraun izateagatik. Lo egiten du eguneko zatirik handienera. Gauak, berriz, pantailaren aurrean igarotzen ditu eta TMC ezizenez sinatzen ditu bidaltzen dituen mezu elektronikoak. Ez da etxetik atera ere egiten, ez bada ezkaratzera, motoan dakarkioten zabor-janaria jasotzera.

Gaur, iluntzeroko tok-tok ate hots sotilaren ondoren, ateak duen zirrikitutik artxiboak gordetzen dituen gailu informatikoa jaso du. Jarraian, bideoak editatu eta eguneko mezuak bidaltzeari ekin dio txelo-musika ozenaren konpainian.

Mezu berria

Hartzailea: Cesarz jauna

Gaia: Zure emaztea

Ez nauzu ezagutzen, baina mezu hau arretaz irakurtzea eskertuko nizuke.

Bideoz grabatutako irudi batzuk bidaltzen dizkizut mezu honekin batera. Horietan, zure emaztea ageri da gizonezko batekin sexu harremanak izaten.

Ez baduzu bideoa argitaratzerik nahi, jarraian bidaltzen dizkizudan pausoak jarraitu besterik ez duzu egin behar.

Laster arte!

TMC

Oharra: Ongi pentsatu egitera zoazena, jokoan dago zure etorkizuna.

2B apartamentua (Dr. Hans Bamberg –Zahnarzt-)

Emakumezkoak dira Hansen bezeroak, betaurreko beltzak jantzita etorri ohi diren emakumezko dotore eta bizi-maila altua duten itxurakoak. Harrerako neska falta duenetik berak irekitzen die apartamentuko atea eta laburragoak dira kontsultak.

Dena korapilatu zen egunean joan zen pikutara negozioa. Ahalik eta lasterren bideratu beharra dauka eta, horretarako, beste norbait kontratatu harrera-lanetan aritzeko. Itxuraz Kirstenen tankera handia duen neska gazte bat ezagutu duela esanez deitu dio Annikak. Hori izango litzateke irtenbidea eraikinaren inguruko inork galderarik egin ez dezan, baina ez da erraza izango hura bezain ergela eta inozoa den inor aurkitzea.

Gaur arratsaldean bigarren ez ireki du atea txirrinak jo duenean eta betaurreko beltzak kendu dituen arte ez du ezagutu emakumezkoa. Zer egin ez dakiela geratu da berarekin hitz egin nahi duela esan dionean. Ez zuen berriro ikusterik espero eta kosta

egin zaio erreakzionatzea. Arazoa betirako konpontzeko ordua dela erabaki du Hansek di-da batean; Kirsten barrura sartzeraz gonbidatu eta sarrerako mahaiaren azpian dagoen larraldietarako botoi gorria sakatu du.

3A apartamentua (Gottschalk)

–Gaur ere etxean eman duzu eguna? Potrohandia! Ezagutu orduko esan zidan Hansek alfer itxura zenuela, eta tuntun hutsa izan nintzen zurekin ezkontzean!

–Elkarrizketa bat dut bihar goizean.

–Elkarrizketa bat, elkarrizketa bat... Dennis, ez dut uste zu bezalako zozo baten beharrik izango dutenik.

–Annika!

–Annika, zer? Zerbait egiteko gai izango al zara, bada? Zazpi urte daramatzazu lanik egin gabe... Ni, berriz, tabernan zerbitzari lanetan Hansentzako bezeroak lortu ahal izateko!

–Zure anaiaren negozio horrek ez du luzaro iraungo! Kirstenekin gertatu zena ezin dut burufik kendu.

–Itxi ezazu ahoa, ostia!

Gauero lez, Dennis Gottschalk langabezia dagoenetik, liskarra izan dute senar-emazteek Annika irainka hasi zaionean. Biharamunean, etxepeko okindegira jaitsi da Dennis, aurpegiko ubeldurak jantzita duen kapelaren azpian ezkutatu.

3B apartamentua (Teresa)

Hilabetea daramat pisu berrian eta ez dut hemen denboraldi luzerako gelditzeko asmorik. Kanpoan igarotzen dut eguna baina, egunero, etxetik ateratzean eta etxera

itzultzean, lehenengo solairuko errezelak mugitzen direla iruditu eta norbait zelatan dudan susmoa izaten dut. Ez naiz batere eroso sentitzen leku honetan.

Annikak, pisua eskaini ondoren, ez dit elkar ezagutu genuenean izandakoa bezain elkarrizketa luze eta atsegirik eskaini eta irribarre behartu batez agurtzen nau etxeo eskaileratan. Askotan pentsatzen dut handiegia ez ote zen pisua niri alokatzeko zuen interesa. Bere senarrak ere, Dennis delakoak, begirada saihesten dit.

Eta bikiak? Maiatzaren lehenengoan, hirian ospatzen den festa handitik bueltan netorrela, fardo handi susmagarri batekin ikusi nituen sotoranzko eskailerak jaisten. Fardotik zintzilik, adats luzea eta beltza ikusi nuela begitandu zitzaidan, baina alkoholaren ondorioak zirelakoan oheratu nintzen. Hala ere, ezin izan nuen begirik bildu gau guztian.

Nire asmoa hemendik alde egitea den arren, etxea zertxobait apaintzeko zenbait gauza erosi ditut. Pare bat poster ipini ditut gela pixka bat nireagoa bihurtzeko, eta kotoizko izara berriak. Hauek tenkatzen ari naizela hartu dut ezustekoa, eskuaz bestetan baino barrurago bultza ditudanean. Koltxoiaren azpian aurkitu dut: Kirstenen egunerokoa. Aurreko maizterrarena izango delakoan, eskuetan hartu eta kuxkuxean hasi naiz. Liburuaren azalean, begi argiak dituen neska beltzaren baten argazkia agertzen da. Hotzikara eragin dit nire antz handia duela ikusteak. Azken orrialdera jo dut zuzenean eta orain dela hilabete idatzia dela ikusi dut; apirilaren azken astean. Jakin-minak jota, egunerokoa irakurtzen hasi naiz:

“...Erabat maitemindu naiz eta, gaur, nire sentimenduak adierazi dizkiodanean, lanera gehiago ez itzultzeko eskatu dit. Gurea elkarrenganako maitasuna zela uste nuen, baina ez nauela inoiz maite izan erantzun dit. Haserretu egin da mehatxatu dudanean eta irainka hasi zait. Ez nuen sekula horrela ikusi eta ateari danbateko bat emanda alde egin dut kontsultatik. Eta orain zer? Dena iruzurra dela kontatzen

badut? Gezurrezko lanbide horren atzean ezkututzen dena emakume aberatsei sexu-harremanak eskaintzen dizkien gizonetzkoa dela zabaltzen badut? Zer uste du? Nire konfiantza guztia eman diot eta txintxo-txintxo egin ditut esandakoak, inori kontatu gabe nire benetako lana sexu-harreman horiek ezkutuan grabatzea zela.

Gogoratzen ditut hasierako egun haiek. Ez nintzen eroso sentitzen eta lana uztea erabaki nuen, baina Hansi begira egoteak sortzen zidan zirrarak eraginda utzi nuen bertan behera hartutako erabakia, maitemindu egin nintzen. Eta hain zen erakargarria soldata, hain zen erakargarria Hans eta hain nintzen inozoa ni...

Bihar bertan maletak prestatu eta hemendik joango naiz. Poliziara jo beharko nuke eta den-dena kontatu, baina beldur naiz. Kartzelara sartuko ote naute ni ere?..."

Ezin izan dut irakurtzen jarraitu. Zer gertatu da Kirstenekin? Nora joan ote da bere egunerokoa han utzita? Bat-batean bikiek zeramaten fardoaz oroitu eta bera izan ote zitekeen pasa zait burutik. Oso urduri jarri naiz.

Egunerokoa hartu, eta al bait arinen handik alde egiteko erabakia hartu dut. Presaka eskailerak jaisteari ekin diot, korrika eta binaka, eta Annika topatu dut, aurrez aurre, lehenengo solairuko eskailburuan. Haren atzean, burua makurtuta, Dennis, senarra. Annikak goitik beherako eta behetik gorako errepasoa egin didala ikustean, izu aurpegiak eta arnasestuak zelatatu nautela konturatu naiz. Egunerokoan pausatu ditu begiak eta argazkia ikusi duela uste dut, parean jarri baitzait, bidea oztopatuz. Pasatzen uzteko asmorik ez duela ohartu naizenean, buelta erdia eman eta nire apartamenturantz zuzendu naiz bizkor, beldurrak jota. Atzetik segika hasi zait Annika eta nire bizitza arriskuan dagoela sentitu dut. Pare bat aldiz erori naiz eskaileratan estropezu eginda, baina, azkenean, lortu dut apartamentuan sartu eta atea giltzaz ixtea. Pauso

hotsak entzun ditzaket kanpoan eta Annikari norbait gehiago elkartu zaiola suma dezaket. Poliziari deitzea erabaki dut, baina ez dut nire sakelakoa aurkitzen. Ate atzean, gero eta ozenagoak dira garrasiak eta nik, berriz, galdu egin dut nire oihu egiteko gaitasuna. Halako batean, indar handiz hasi dira ate joka. Ihes egiteko aukerarik ez dudala onartu eta paretaren kontra eseri naiz, lurrean uzurtuta, atea ostikoz noiz botako zain. Bat-batean isiltasuna gailendu da, eta arnasari buelta eman ezinik nabilela entzun dut giltza sarrailan sartzen. Atea ireki orduko, burua altxatu eta bikiak ikusi ditut nigana hurbiltzen. Eskuan daramatena ikusita, nire heriotzaren gertutasuna sentitu dut eta DANBA!

Begiak zabaltzeko saiakera egin dut, baina betazeletan sentitu dudak pisuaren eraginez, nahi baino lehen itxi zaizkit ostera ere. Irudi nahasiak eta lausoak ikusi ditut instant labur batez. Minbera dut garondoa eta, apurka-apurka, azken orduetan gertaturikoaren printzak datozkit oroimenera. Dennis Gottschalk dut alboan. Dena bukatu dela errepikatzen dit behin eta berriro, ambulantiak, argi urdin eta sirena-hots ozenak barreiatzen dituenak, gertakarien eszenatik urruntzen gaituen bitartean.